

Neure buruaren zati haundia zareten **LAB**eko maite guztiok, ezer baino lehen: **GORA LAB!**

Sekulako ahaleginak egiten ari natzaizue zirrarak gaindi ez nazan. Baina lasai, ez beldurtu, lortuko dut.

Azken urteotan gure Sindikatuá eramaten ari den iharduera politiko-sindikala, lortzen ari den emaitza sindikalak eta gauzatzen ari den akordioak ikusiz eta Kongresuko ponentziak behin irakurriz gero, benetan **LAB**ez harro eta erabate ilusionaturik nagokizue.

Badakit eztabaidagarriak, duda-mudazkoak izan daitezkeen gauza asko dituzuela. Nire uste apalean, horrela izan behar da. Urrats garrantzitsuak emateko arriskatu behar da. Baina merezi du: "ez dago elorririk gabeko arrosarik". Aurrera!

Mundu mailan eta Euskal Herrian zer esanik ez dago, sindikalismo berri baten beharra gero eta haundiagoa dugu, baina erabateko berrikuntzarekin arlo guztietan.

Kapitalismoa erasoan dago, zoraturik, inoiz baino bortizkiago. Buruan dauzkat langile frantsez baten hitz esanguratsuak: " 68.ko Maiatzean konkista berriak lortzeko burukatu genuen, orain, lortutakoa ken ez diezaguten burukatu behar dugu".

Horretan dabilkigu kapitalismoa, Ongizatearen Estatua deuseztzeko eta lan-kontratu tinkoak desagertaratzeko asmotan, soldatak eta bizibaldintzak okertzen eta mozkinak mugarik gabe handitzen diren bitartean.

Bere helburuak lortzeko, kapitalismoak aspalditik borroka ideolojikoari ekiten dio etengabe, mota guztietako baliabideak erabiliz, batez ere

**ZA  
BAI  
TZEN**

DOKUMENTAZIO  
ZENTROA

TXT 20144

komunikabideak, eta horrek sekulako eragina dauka langileen klase kontzientzian. Azken hau nabarmenki ahultzen ari da eta elkartasuna desagertuz doa hala herrien nola langileen artean.

Sistemak, ezkerreko baloreak indargabetu nahi ditu eta aldez edo moldez, bere helburua lörtzen ari da.

Gustoko izan ala ez, ezkerreko oinarrien funtsezkoak izaten jarraitzen dute eta behar-beharrezkoak ditugu gure iharduera politiko-sindikala eraginkorra izan dadin Euskal Herriarentzat.

Zeozerk porrot eskandalagarria egin badu, kapitalismoa bera izan da. Non dago bere funtsezko eskaintza ospetsu hori: " lana guztientzako beti"? Kapitalismoak duen eskaintza historikoa bete lezake, baina bere jainko bakarra mozkin-metaketa denez, ezin du. Kapitalismoaren barruan miseria materiala eta ideologikoa baino ez dezakegu espero, argi dago.

Beraz, gizarte berri eta bidezkoagoa eraikitzeko, behar-beharrezkoa dugu aldaketa soziala.

Kapitalismoaren planak geldiarazteko, gizarte berri bat eraikitzen hasteko, nik baino hobeto dakizue zuek, gure tresna propioak behar ditugula eta hori marko politiko berri baten barruan, autodeterminazioaren bidean, baino ez da posible.

Bo, parkatu, horrela jarraituz gero, beste ponentzia bat aterako litzaidake, eta lagunak nahi zaituztet, ez etsaiak.

Ideologia zaindu eta hedatzeko, kapitalismo basatiaren kontra ihardutzeko, gure Herriarentzat benetako botere politikoa lortzeko, .... hau guztirako langileen batasuna ezinbestekoa da.

Zentzu horretan, LABek, zuek, ireki izan duzuen bidea miresgarria izan da. Aspaldi honetan, Euskal Herrian eman duen aurrera pausorik handiena, itxaropentsuena. Zorionak, bihotzez. Segi horrela, mesedez.

Sindikalismo berri bat langileen eta euskaldun guztien defentsarako, sindikalismo berri bat eraikuntza nazionalerako, sindikalismo berri bat herrien arteko elkartasuna zabaltzeko, ... Sindikalismo berri batek euskalduna izatea eskatzen du, baina benetan, hots, euskara maite, landu eta gizartean zabaltzen duen sindikalismoa. Sindikalismo berri batek matxismoaren kontra kupidarik gabe borrokatu behar du, baina benetan ere bai, ez ahoz bakarrik.

Asakatasunaren eta gizarte justoago baten bidean egoteko, lana, borroka beharrezkoak ditugu. Eguzkipean, batez ere guretzat, euskaldunentzat, ezer berririk ez dago, betikoa baizik, "mila urte igaro eta ura bere bidean", Beotibarko gudu kantak zioen bezalatsu.

Aurrera, kide maiteok. Euskal Herriaren Askatasunaren grinarekin bihotzean, Gizarte justuago bat eraikitzeko asmoarekin buruan eta euskararekin beti ahotan sar ditzagun gure sindikatuan asmo, ideia, itxaropen berriak.

Gure Sindikatuaren gorputz berri horretan, ilusioa, lana eta abertzaletasunaren poderioz, gure Aberri maitea Askatasunaren urrezko ametsaraino eramango duten indarrak sortuko dira, zalantzarik gabe.

**LAISTER ARTE!  
BESARKADA HAUNDI BAT!  
GORA LAB!**